

<b>Irakasgaiaren izena</b>	<b>Kodea</b>	<b>Ikasturtea</b>
Hautzaroaren Psikologia eta Hizkuntzaren Jabekuntza	151317	2025-2026
<b>Titulazioa</b>	<b>Maila</b>	<b>Seihilekoa</b>
HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA	2	2
<b>Irakasgai mota</b>	<b>ECTS Kredituak</b>	<b>Hizkuntza</b>
Oinarrizko prestakuntza	10 ECTS	Euskara
<b>Irakasleak</b>		
Irati Alvarez Piñero eta Iñaki Moriones Madariaga		

### Justifikazioa

Ikasgai honek, 0 eta 6 urte bitarteko haurren garapen prozesuan eragiten duten aldagai anitzen kontzientzia lantzeko aukera eskaintzen dio ikasleari. Garapenaren dimentsioei, arreta goiztiarraren oinarrizko printzipioei, eta hezitzailearen eta haurren arteko harremanak honen ikaskuntza prozesuan duen eraginari buruzko ezagutzak lantzen dira ikasgaiaren. Horrela, haurren ezaugarriekiko aproposak diren programazioak garatzeko gaitasunak landuko ditu ikasleak.

Bide batez, haurren oinarrizko beharrak eta garapen integrala asetzeko garrantzitsuak diren elementuak landuko dira: gelako denboraren eta espazioaren antolakuntza, zereginen aniztasuna, talde barneko elkarrekintzen egokitasuna, besteak beste. Horien ezagutza ezinbestekotzat jotzen da Haur Hezkuntzako irakasle batek jaso behar duen formazioaren baitan.

Bestalde, Hizkuntzaren Jabekuntzari buruzko ikasgaiaren moduluan, ikasleak 0 eta 3 urte bitarteko haurren hizkuntza jabekuntzaren garapena aztertuko du. Ikasleak hizkuntza jabekuntzaren oinarriak ezagutu beharko ditu, alde batetik; bestetik, etapa horretako hizkuntzaren garapenaren ezaugarrien diagnosis egiteko gai izan beharko da, kontuan izanik haurren artean egon daitezkeen desberdintasun nabarmenak.

### Aurrebaldintzak

Ez dago.

## Gaitasunak

### Gaitasun orokorrak (GO)

- **Ahozko komunikazioa (bigarren maila):** Hitzen bidez norberaren ideiak, ezaguerak eta sentimenduak argi eta egoki adieraztea, egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz, haien ulerkuntza eta atxikimendua lortzeko. Taldean hitza erraz hartzea; segurtasuna adieraztea eta diskurtsoa eskakizun formaletara egokitzea.

### Berriarazo gaitasunak (BG)

- Etaparen izaera eta beronen ezaugarri psikomotorrak, kognitiboak, sozialak eta afektiboak aztertu. Horietan oinarrituta, haurren ezaugarri psikoebolutiboekin bat datozen ikaskuntza-segidak eta egoerak planifikatu.
- Arreta goiztiarraren oinarriak kontuan izanik, Haur Hezkuntzako curriculuma ezagutu eta baloratu.
- Aniztasun testuinguruetan, adin tarte honetako haurren hezkuntza beharrei erantzuteko helburuaz, ikaskuntza espazioak eta denborak diseinatu eta erregulatu.
- Haur Hezkuntzan haurren garapen integrala bultzatzeko helburua duten estrategia metodologiko egokiak aztertu.
- Gelako egoera eta baldintza aniztetan gertatzen den ahozko komunikazioa bultzatzeko irakasleak darabiltzan estrategiak identifikatu eta deskribatu. Haur Hezkuntzako lehen zikloan ahozko adierazpena lantzearen eta estimulatzearen garrantzia justifikatu irizpide egokiei jarraiki.
- Ikaslearen hizkuntza jabekuntzaren garapenaren etapa identifikatu, horretarako haurren produkzioen ezaugarriak eta dagokion une ebolutiboa lotuz modu argian eta justifikatuan.



## Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaietan



### ODS 4 Kalitatezko hezkuntza

2. Ikaslea jabetzen da hezkuntza ondasun publiko, munduaren ondare, oinarriko giza eskubide eta beste eskubide batzuk betetzeko oinarri dela.

Era berean, irakasgai honek honako LSH zeharka ukituko du:



### 6. LSH. Hezkuntza ekologikoa.

Eskola-hezkuntza onak bizitza osoan zehar eragina izan dezaketen haziak jartzen ditu.

## Edukiak\*

Irakasgai bi moduluetan banatzen da: *Hurtzaroaren psikologia* eta *Hizkuntzaren jabekuntza*.

### HAURTZAROAREN PSIKOLOGIA:

1. Garapen psikoebolutiboa hurtzaroan
2. Etapako ezaugarri kognitiboak, psikomotorrak, komunikatiboak, sozialak eta afektiboak
3. Arreta Goiztiarraren oinarri teorikoak

4. Espazioaren eta denboraren antolakuntza haur eskolan
5. Haur Hezkuntzako estrategia metodologiko nagusiak
6. Hizkuntzaren tratamendua Haur Hezkuntzako lehen zikloan: justifikazioa eta tratamendu didaktikoa
7. Hizkuntza jabekuntzaren garapena 0-3 urte bitarteko haurren etapan: fonologia, semantika, morfosintaxia eta pragmatika

#### **HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA:**

1. Hizkuntzaren tratamendua Haur Hezkuntzako lehen zikloan: justifikazioa eta tratamendu didaktikoa
2. Hizkuntza jabekuntzaren teoriak
3. Hizkuntza jabekuntzaren garapena 0-3 urteko haurren etapetan:
  - 3.1. Pragmatika 0-3 urteko haurren hizkuntza jabekuntza prozesuan
  - 3.2. Fonologia 0-3 urteko haurren hizkuntza jabekuntza prozesuan
  - 3.3. Lexikoa 0-3 urteko haurren hizkuntza jabekuntza prozesuan
  - 3.4. Morfosintaxia 0-3 urteko haurren hizkuntza jabekuntza prozesuan
4. Gelarako material didaktikoen sorkuntza

#### **Ikas-irakaskuntza estrategiak\***

Materiak honako irakaskuntza-ikaskuntza estrategiak jarraituko ditu:

- Aztergaia testuinguruan jartzen lagunduko duten jarduerak: 0-6 urte bitarteko haurren ikaskuntza euren testuinguruetan (familiakoa, soziala eta eskolakoa) ezagutzen laguntzen duten jarduerak. Esperientzia esanguratsuetan oinarrituko dira: hausnarketarako galderak egin; bizi esperientziei, hautemateei eta motibazioei erreferentzia egin, e.a. (Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren %5 eskainiko zaie).
- Hausnarketa pizten duten jarduerak: Ekintza hezitzaileek, eta haurrek berdinekin eta helduekin duten elkarrekintzek, garapenean duten eraginari buruzko hausnarketa bultzatzen duten jarduerak: eztabaida edo behaketa sistematikoaren bidez, dokumentu desberdinak aztertuz... (Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren %10 eskainiko zaie).
- Ikasgaiaren edukiei buruzko aurkezpenak eta lanak: Aurkezpenen eta testuen irakurketaren bidez, kontzeptualizazio aktiborako balio duten jarduerak. Arreta goiztiarraren oinarriak eta honek 0-3 eta 3-6 urte bitarteko haurrengan duen eragina ulertzeko balioko dute; baita etaparen ezaugarri psikoebolutiboen eta hezkuntza errealitatearen ezagutza orokorra izateko ere (Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren %20-30 eskainiko zaie).
- Jarduera praktikoak: Aplikaziorako jarduerak: tailer praktikoak, ariketak eta proiektuak, simulazioak eta haurrekin bideratutako ariketa praktikoak (Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren %50 eskainiko zaie).
- Ebaluazioa hurrengo atalean jasotzen den bezala bideratuko da: (Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren %10-15 eskainiko zaie).

## Ebaluazioa\*

*Haurtzaroaren Psikologia* modulua kalifikatzeko honako irizpide hauek jarraituko dira:

- Banakako lana: Ahozko komunikazioa: %50
- Azterketa: %50

*Hizkuntzaren Jabekuntza* modulua kalifikatzeko, ondoko teknika hauek erabiliko dira:

- Jarduerak: %10
- Talde lana: %15
- Ahozko komunikazioa ebaluatzeko lana(k): %25
- Azterketa: %50

### Adimen artifizialaren erabilera:

Adimen artifizialeko tresnak edo horien bidez sortutako edukien erabilera ikasgaiko zeregin eta lanen orientabide espezifikoetan arautuko da. Zer tresna eta nola erabil daitezkeen adierazten ez den bitartean, ez dago baimenduta horiek erabiltzea.

### OHARRAK:

- *Haurtzaroaren Psikologia* moduluararen kalifikazioa azken kalifikazioaren %60 izango da.
- *Hizkuntzaren Jabekuntza* moduluararen kalifikazioa azken kalifikazioaren %40 izango da.
- Ikasgaia gainditzeko ezinbestekoa da modulu biak gainditzea.
- Modulu bakoitza gainditzeko, ezinbestekoa da item guztiak gainditzea.

## Dokumentazioa

Barandiarán, A., Larrea, I. eta Lopez de Arana, E. (2011). *Haurraren ongizatea I: Oinarri psikopedagogikoak*. Mondragon Unibertsitateko Zerbitzu Editoriala.

Barandiarán, A., Larrea, I. eta Lopez de Arana, E. (2011). *Haurraren ongizatea II: Hezkuntza proposamenak*. Mondragon Unibertsitateko Zerbitzu Editoriala.

Barreña, A. (1995). Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun. *Fontes XXVII*, 69-96.

Benlloch, M. (2002). De ilusión también se enseña. *Infancia: educar de 0 a 6 años*, 75, 9-13.

Bigas, M. eta Correig, M. (edk.) (2001). *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Síntesis.

Bigas, M. (1996). La importancia del lenguaje oral en educación infantil. *Aula 46*, 5-8.

Bigas, M. (2001). El lenguaje oral en la educación infantil. In M. Bigas eta M. Correig (edk.), *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Síntesis.

Cabrera, M.C. eta Sánchez, C. (1998). *La estimulación precoz: un enfoque práctico*. Siglo XXI.

Castro, J.P., Hernández, O.M. eta Galbarro, F. (2016). *Didáctica de la educación infantil*. Síntesis.

Celeste, B. (1990). *El primer año de escolarización: cuando el niño de 2 años llega a la escuela*. Narcea.

Chen, J.-Q., Isberg, E. eta Krechevsky, M. (2012). *El proyecto Spectrum. Tomo II: La teoría de las inteligencias múltiples en educación infantil*. Morata, S.L.

Clemente, R.A. (1995). *Desarrollo del lenguaje*. Octaedro.

- De Diego, J. (1996). Aprender a usar el lenguaje en la escuela infantil. *Aula 46*, 9-13.
- De Pablo, P. eta Trueba, B. (1994). *Espacios y recursos para ti, para mí, para todos. Diseñar ambientes en educación infantil*. Escuela Española.
- Doblas, M.S. (2009). El diseño de las rutinas diarias. *Revista de Innovación y experiencias educativas*, 16.
- Fiuza, M.J. eta Fernández, M.P. (2013). *Dificultades de aprendizaje y trastornos del desarrollo. Manual didáctico*. Pirámide.
- Garaigordobil, M. (1990). *Juego y desarrollo infantil: La actividad lúdica como recurso psicopedagógico. Una propuesta de reflexión y de acción*. Seco-Olea.
- Gutiérrez, D., Bartolomé, R. eta Hernán, L.M. (1997). *Educación infantil II*. McGraw-Hill.
- Jiménez, M. (2000). *Las relaciones interpersonales en la infancia: sus problemas y soluciones*. Aljibe.
- Laguía, M.J. eta Vidal, C. (2009). *Haur-eskoletako jarduera-txokoak. Orik 6 urtera*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- López, F., Etxebarria, I., Fuentes, M.J. eta Ortiz, M.J. (koord.) (2000). *Desarrollo afectivo y social*. Pirámide.
- Madrid, D. eta Barcia, M. (2017). *Temas clave de educación infantil (0-6 años)*. La Muralla, S. A.
- Muñoz, R. (2015). *Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa: arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan. Bigarren fasea: detekzio espezifikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Muñoz, R. (2016). *Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa: arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan. Arreta goiztiarreko marko-plana*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Perpiñán, S. (2013). *La salud emocional en la infancia. Componentes y estrategias de actuación en la escuela*. Narcea.
- Rodrigo, M.J. eta Palacios, J. (koord.) (2000). *Familia y Desarrollo Humano*. Alianza Editorial.
- Rondal, J. (1999). *El desarrollo del lenguaje*. ISEP.
- Serra, M., Serrat i Sellabona, E., Solé, M.R., Bel, A. eta Aparici, M. (2001). *La adquisición del lenguaje*. Ariel.
- Serrano, A.M. (2005). *Inteligencias múltiples y estimulación temprana*. Eduforma.
- Viera, A. (2000). La atención a la diversidad en educación infantil: los rincones. *Aula de Innovación educativa*, 90, 25-32.
- Hausnarketan laguntzeko erabiliko diren bestelako materialak eta artikulak ALUDen bitartez egongo dira eskura kurtsoan zehar.

\*Programaren atal batzuetan aldaketak egon daitezke ikasgaiarekin hasi aurretik. Betiere, aldaketa horiek ikaslearen eta irakaslearen beharretara egokituta egongo dira ikasgaiaren edukiak eta ikaste prozesua hobetzeko helburuarekin.

